

# EKONOMIA ETA FINANTZAK


## AURREKO DENBORALDIAK

Realak egoera ekonomiko-finantzarioa zeharo irauli du azken hamarkadan zehar. Kategoria jaitsieratik eta galeratan errekorra hautsi zen denboralditik 8 urte igaro eta gero, egoera haren ondorioak (gutxitzen doan eta oraindik guztiz kitatzeko 25 urterainoko epea geratzen den zor konkurtsala hain zuzen) ongi bideratuak dirudite.

Lehen Maila 2010ean berreskuratu eta gero, seigarren denboraldia jarraian betetzen da irabaziak galerak baina handiagoak izanda.

## Realaren finantza emaitzak

2009-2010 denboralditik 2015-2016 denboraldiraino



[Norberak egina Klubak argitaratutako kontuetatik]

# GAUR EGUNGO EGOERA ETA TESTUINGURUA

Aurreko denboraldi bukaeran hogeita hamar milioi eurotik goraxeago dauden mozkinak baieztatu eta gero, aurreko denboraldietako emaitza negatibo metatuak zeroan gelditu dira eta Administrazio Kontseiluak beste 23,7 milioi euro erreserba moduan gordetzea proposatuko du hurrengo abenduaren 9ko akziodunen batzarrean. Azken hauek etorriko diren inbertsio eta gastuetan jarri ahal izango dira.

Egungo arlo ekonomiko-finantzarioaren sendotasunari, aurtengoan, telebista eskubideen banaketa berria batzen da. Banaketa berriak klub bakoitzaren orain arteko banan banako negoziazioa ordezkatzeko du.

Gastu eta inbertsioen artean, azken berrien arabera Anoetara balizko erreformak (40-45 milioi eurotan aurreikusitakoa) 11,6 milioiko aportazioa eta 16 milioi euro arteko mailegua aurrera eramatea eskatuko du.

Guztiak kontuan izanda, aurtengo denboraldira begira honakoak dira aipagarriak:

- Asier Illarramendi edo Jonathas de Jesus jokalarien etorreran eta soldatan inbertitutako kopurua garrantzitsua izanagatik ere (kontratuen iraupen urteetan zehar kontuetan islada izango duena), aurtengo denboraldira begira aurreikuspena sarrera eta gastuak orekatzea da (68 milioi eurotan) jokalarien salmentatik etor daitekeen dirua kontuan izan gabe.
- Errealeko kontuetan telebista eskubideengatik sarrerek duten eragina nabarmen haziko da, 20 milioitan. Diru-iturri hau aurtengo sarrera guztien %66a arte haztea eragingo du, eta aipatutakoei Mediaprekin epaitegietan izandako tirabirengatik beste hamar milioiko sarrerak gehitzea faltako litzateke.
- Gainontzeko diru-sarrerei dagokionean, ez da ia aldaketarik aurreikusten txartel salmenta eta abonuegatikoetan (9,1 milioitan daude aurreikusita); aipagarriagoa dirudi, ordea, publizitate eta babesleengatik sarreretan espero den hazkundera. Zehazki, aurkeztuko den aurrekontuetan 6,5 milioira arte iritsiko da, aurreko urtean baino 2,3 milioi gehiago.
- Aurreikusitako gastuen artean, ohikoa den bezala lehen taldearen soldatengatik kostuak atentzioa ematen du. Aurtengoan 36,6 milioi beharko dira honetarako, aurrekoan baino 4,4 milioi gehiago.
- Kontuetan ez da aurtengoan egin beharreko Anoetaren erreformarekin erlazonaturiko kopururik ageri. Hau koherentea da lanak abuztuan hasi daitezkeela dioten azken berriekin (martxan dauden prozeduretan atzerapenik ez badago behintzat).